

ERABAKIA, 2016ko MAIATZAREN 9koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, SGIKERreko, OSASUN ARLOKO/ANIMALIATEGIKO, GOI MAILAKO TEKNIKARIEN LAN POLTSAK HEDATZEKO DEIALDIKO OINARRI ESPEZIFIKOAK ARGITZEKO DENA.

UPV/EHUko gerentearen 2016ko apirilaren 15eko Erabaki bidez, hautaketa prozesurako deialdia egin zen SGIKERreko goi mailako teknikarien lan poltsak hedatzeko, eta horien artean zegoen Osasuna/Animaliategia espezialitatearekin lotutako lan poltsa.

Prozesuan parte hartzeko baldintzetan, bigarren oinarriaren b) baldintzan, jasotzen zen doktoregoaz, Zientzia Esperimentaletako lizentziaz/graduaz, edo arlo biosanitarioko lizentziaz/graduaz gainera, beharrezkoa zela egiaztatzea *"Esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabilitako animaliak babesteari buruzko urriaren 10eko 1201/2005 EDn aurreikusitako gaikuntza berezia: D kategoriako langileentzako eskatutako titulu ofiziala edo aipatutako EDren hirugarren xedapen iragankorrean aipatutako esperientzia baliokidea, 53/2013 Errege Dekretuak, otsailaren 1ekoak, ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bidez, esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako -irakaskuntza barne- erabilitako animaliak babesteko aplikagarriak diren oinarritzko arauak ezartzen dira"*.

Era honetara zehaztu beharko zen aipatutako baldintza:

d) eginkizunerako gaikuntza (proiektuak eta prozedurak diseinatzeko eginkizuna), 2015eko apirilaren 1eko ECC566/2015 Ministro Aginduekin bat etorrita, horren bidez ezartzen baitira esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabili, hazi edo hornitutako animaliak baliatzen dituzten pertsonen bete beharreko gaikuntzarako baldintzak.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, gerente honek hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Zuzentzea SGIKERreko, Osasun arloko/Animaliategiko, goi mailako teknikarien lan poltsa hedatzeko oinarri espezifikoa, adieraziz ondokoa dela gaikuntza berezirako bete beharreko baldintza: **d) eginkizunerako gaikuntza (proiektuak eta prozedurak diseinatzeko eginkizuna), 2015eko apirilaren 1eko ECC566/2015 Ministro Aginduekin bat etorrita, horren bidez ezartzen baitira esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabili, hazi edo hornitutako animaliak baliatzen dituzten pertsonen bete beharreko gaikuntzarako baldintzak.**

Bigarrena.- Kontuan hartuta, oinarri espezifikoen ondorioz, interesatuta zeuden pertsona batzuek agian ez zutela eskaerarik egingo ezarritako epean, erabaki da



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

eskaerak aurkezteko 10 egun naturaleko beste epe bat zabaltzea, deialdiaren web orrian argitze hau argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

Leioan, 2016ko maiatzaren 9an

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché

